



“PERTSONAK LEHENBIZI”

GIZARTE EKIMENeko ENTITATE NAFARREN ADIERAZPENA GIZARTE ETA OSASUN ARLOETAKO
GASTUAK ERRESERBATZEA EDO MURRIZTEA AURREIKUSTEN DUTEN NEURRIEN AURREAN

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Azken asteotan, Nafarroan ardura politikoak dituzten pertsonak aurreikusten ari dira zenbait aurrekontu erreserbatzeko / murrizteko neurriak hartuko direla; gehienbat, Nafarroako osasun eta gizarte ongizateko arloetako zerbitzuetan eragina izanen dute horiek. Esaten dutenez, neurri horien bidez egungo krisiaren ondorioak arinduko dira, baita defizit publikoa murriztu ere.

Egoera horren aurrean, gizarte ekimeneko zenbait entitate nafarrek -honako arlo hauetakoak: osasuna, garapenerako lankidetzak, immigrazioa, ahalmen urritasuna, elkartasun ekonomia eta gizarte bazterkeria- euren kezka agertu nahi dute neurri horiek etorkizunean gauzatzeko arriskuaren aurrean. Horregatik, honako hausnarketa hauen berri eman nahi diote Nafarroako gizarteari:

- Nafarroako administrazio publikoek, euren lege, akordio eta planen markoan (Pobreziaren aurkako Nafarroako Ituna, Osasun arloko Plan Estrategikoa), bai eta nazioarteko mailan hartutako konpromisoen markoan ere, zerbitzu publikoak, prestazioak eta finantzazioa eskaintzen dituzte bizi-kalitate hobea eskaintzeko, bai Nafarroako herritarrentzat, bai gu baino okerrago dauden herrialdeentzat.
- Halaber, Nafarroako gizarte zibila, bizi-kalitate horrekin berez duen konpromisoarekin bat, gizarte ekimeneko entitateen bitartez antolatzen da, eta administrazio publikoa iritsi ez eta behar bezala lantzen ez dituen arloak lantzen dituzte entitate horiek.
- Administrazio publikoek herritarren bizi-kalitatea hobetzeko duten jokabidearen ardura partekatzen dute gizarte ekimeneko entitateek ere, eta haien osagarri dira, batez ere honako arlo hauetan: osasuna, gizarteratzea, immigrazioa eta gizartearen elkarbizitza, ahalmen urritasuna eta garapenerako lankidetzak.
- Gizarte ekimenaren jokabideari esker, gizarte nafar osoaren eta horren barnean behar espezifikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzen da. Izan ere, komunitatearen ongizatea lortzeko funtsezko elementua dira gizarte ekimeneko entitateak, administrazio publikoen lanaren osagarri bezala.
- Neurri handi batean, aurrekontu publikoetan oinarritzen da gizartearen ongizatea hobetzeko jokabide hori guztia, bai administrazioarena, bai gizarte ekimenarena. Krisi ekonomikoaren egungo testuinguruan, antza, gastu publikoa murrizteko logika nagusitzen ari da, eta horrek eragin handi izan dezake hainbat esparrutako zerbitzuetan eta finantzabidearen laguntzan. Horren ondorioz, nahitaez, behera egingen du biztanleria osoaren ongizateak, eta bereziki, gizartean ahulenak diren eta/edo osasun arloko behar bereziak dituzten kolektiboak.

Testuinguru horretan, gizarte ekimeneko entitate nafarrek ondorengo hau adierazi nahi dute:

1. Bistan da krisi ekonomikoa egon badagoela, baina begi-bistakoa da, baita ere, egiturazko arazoak izan direla bere sorreran, eta horrek argi uzten du parametro ekonomiko berriak behar direla, etorkizunean antzeko zerbitzu berriz gertatzea galarazteko modukoak. Jokatzeko arau berriak behar dira, besteak beste, gastu publikoaren eraginkortasuna handitzea, eta administrazio publikoak finantzatzeko formula berriak ere bai; saihestezinak dira horiek, gero eta gehiago, gainera.
2. Sekula baino gehiago, egungoa bezalako testuinguru batean, elkartasuna eta babes eskaintzen duen agentetzat jo behar da gizartea, eta administrazio publikoek borondate hori bera dutela antzeman behar da egindako aurrekontuen bidez; horiek, noski, hezkuntzan, gizarte ongizatean eta osasunean jarri behar dituzte gizarte gastuaren lehentasunak.
3. Gizartearen eta klase politikoaren zati batek gizarte eta osasun arloan murrizketak egotea kontu arrunta bezala ikusteak kezkatu egiten gaitu. Hori ez da soilik biztanleriaren bizi-baldintzen okerragotze bat -bereziki, Nafarroako biztanle ahulenena eta okerrago dauden herrialdeetako biztanleena- baizik eta atzera egitea Nafarroan Gizarte Ongizatean lortutako konkistan, are gehiago heldu diren urteetarako gero eta murrizketa gehiago aurreikusten diren honetan.

4. Gizarte gastuan eta osasun arloan erreserbak / murrizketak eginez lortu nahi duten aurrezki horrek mozketak handiak ekarriko ditu epe laburrean prebentzio, sustapen eta arretako jardueretan, eta, epe ertainera, laguntza zerbitzu gehiago eskatuko dira, horrek dakartzan gastu ekonomiko guztiekin, aurrezki nahi dena baino handiagoak. Gizarte ekimeneko lana gastu faktore gisa aurkezten da, baina, ordea, aurrezki faktorea da laguntza arloan, jarduera ekonomikoaren sorreran eta Ongizatea zabaltzean.
5. Gizarte baten eta gobernuen handitasuna biztanleria osoaren bizi-kalitatea sustatzeko eta defendatzeko duen gaitasunean datza -bereziki, osasun fisikoa eta/edo fisikoa eta gizartetik kanpo dauden edo gelditzeko arriskua duten pertsonena, bertan bizi edo ahultasun arriskua duten herrialdeetakoak izan-. Gizarteari dagokigu konpromiso handiagoa agertzea gizarte intereseko helburuen defentsan, baita hamarkadetan lortutako gizarte ongizatea defendatzea ere; eta gobernuei dagokie horiek ziurtatzea, politika- eta aurrekontu-konpromisoen bidez; eta horien artean ez dago jokabide publikoak eta/edo gizarte ekimenekoak mozten dituzten aurrekontu lerroak murriztea eta/edo erreserbatzea.

Arestiko horregatik guztiarengatik, **eskatzen dugu:**

1. Bertan behera uztea osasun arloan eta gizarte gastuan eragiten duten Nafarroako Aurrekontu Nagusien aurrekontu lerroen erreserba / murrizketa, bai 2010ean, bai hurrengo urteetan.
2. Adostasunak eratzea Nafarroako politika eta gizarte agenteen artean, bai egungo krisia gainditu ahal izateko, bai etorkizunean antzeko egoerak gertatzea prebenitzeko, Nafarroako biztanleriaren bizi-kalitatea, oro har, eta gizartearen pertsona ahulenena kaltetu gabe.
3. Beren horretan mantentzea Nafarroako Gobernuak honako arlo hauetan indarrean dituen planak, programak eta konpromisoak: osasuna, gizarteratzea, ahalmen urritasuna, garapenerako lankidetzak, immigrazioa eta ongizate komunitarioa.
4. Gardentasuna eta zehaztasuna Nafarroako Gobernuak eta alderdiek emandako informazioan, gizarte politiketan eragiten duten gaietan.

Atxikitako Entitateak:

- Nafarroako Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren kontrako Sarea (26 entitate bazkidek osatutako plataforma)
- Garapenerako GKEen Nafarroako Koordinadora (62 GGKE bazkide)
- REAS Nafarroa (36 entitate bazkide)
- Cormin, Ahalmen urritasuna duten pertsonen ordezkarien Nafarroako Batzordea (17 entitate bazkide)
- Consejo Navarro de la Juventud / Nafarroako Gazte Kontseilua (72 gizarte elkarte)
- RCADE, Kanpo Zorra Ezabatzearen aldeko Herritarren Sarea
- Alcer Nafarroa
- Umetxea Sanduzelai
- Alde Zaharreko Plan Komunitarioa
- Kattalingorri
- Ilota Ledo
- SARE elkarte
- Gozamenez / Con Mucho Gusto programaren koordinadora teknikoa
- SARAY, Asociación Navarra de Cáncer de Mama / Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkarte
- Askagintza
- Hegoak
- Por los Buenos Tratos kolektiboa
- Coordinadora de Inmigrantes de Navarra
- Federación SiñarZubi